

Literatura →

Historiaren ifrentzuaren oparia

Iraxe Esnaola

Irene Nemirovski (Kiev, 1903 - Auschwitz, 1942) XX. mendeko idazlerik handien artean paratu behar da. Euskarara itzuli zaion laugarren lana da hau, *Dantzaldia, Arimen maisua* eta *Birjinak* argitaratu ostean. Miarrizten, Urruñan zein Hendaian egin egonaldi ugari eta euskaraz ikasi izanak, haren irudia hurbildu egiten digu euskaldunoi. Burges aberats berrien alaba bakarra izaki, hezkuntza frantsestua jaso izanak lagundu zion, 1912ko Urriko Iraultza boltxebikaren ondorioz familiarekin ihesi irten ostean, Parisko bizitzara egokitzen. Hogeita sei urterekin, kritikaren babesa lagun, idazle kontsakratu bihurtu zen *David Golder* lanari esker. Gaurkoan aipagai dugun obra Bigarren Mundu Gerran kokatzen da, Alemaniako abizioak Paris bonbardatu atarian. Alarma sirenen beldurrean hasten da eleberria, eta Alemaniak eta Errusiak gerrari ekitean amaitu. 1942ko uztailaren 14an sartu zuten Auschwitzeko kontzentrazio esparruan Irene Nemirovski judua, eta abuztuaren hil zen tifusak jota. Ez zuen gerraren

amaiera ezagutu. Elisabeth eta Denise Epstein alabek amaren maleta bat gorde ahal izan zuten urtetan, haren izkribuak biltzen zituena. Urte mordoaren ostean aurkitu zuten kalitate eskaseko orri eta tinta kaxkarreko letra txiki-txikiz idatzitako koaderno batean ezkutuan egona zen obra. Transkribatu, mekanografiatu eta 2004ko Renaudot saria eskuratu zuen Frantzian, eta berehala nazioarteko arrakasta lortu.

Obra hain da oparoa eta hain-beste pertsonaia badira bertan, alferrik litzateke hemen adierazi nahia. Bi zatitan banatzen da, *Ekaitza ekainean* eta *Dolce* izenekoetan, nahiz egileak bost ataleko eta milaka orriko lana izan buruan, betetzetik izan ez zuena. Lehenengo atalak exodoa, iheslarien kronika du narrazio hari, Paristik landarako bidean, herriz herri. Mugarantz edo babeslekuetara aberatsenak, bizirik irauteko ahalegin itsuan gehienak. Elkartasun pasarte hungigarriak eta berekoikeriaren alderdirik ilunak elkarren ondoan dakusagu, behin izakia muturreko egoera kritikotetan jarrita. Bigarren zatiko kontakizuna armistizioa sinatu ostean Frantzia erdialdeko he-

rri batean kokatzen da, tropa naziak zenbait hilabetetan okupatua izan zuten herrian. Deskribapen azalekook adierazten dutenez, ez da fronteari buruzko eleberririk bat. Gerra estrategien atzean geratzen direnei begira dago, pertsonaiei, pertsonari. Gainera, kolektiboak (alemaniarak, frantziarrak) uniformeki blokean ez epaitzeko, haien gaineko iritzi bateratu bat ez emateko saioa ere bada, nahiz egileak maisuki bereizi klase ezberdintasunak dakartzan ondorioak. Exodoak zein okupazioak ez du berdin eragiten. Politikari eta handikiak prest diralarantz berrietarako. Burge-



'SUITE FRANTSESA'

- **Idazlea:** Irene Nemirovski.
- **Itzultzailea:** Mikel Garmendia eta Joxe Antonio Sarasola.
- **Argitaletxea:** Alberdania.

sek elkar zaintzen dute. Berdintasunik nahi ez, eta herriaren beldur dira aristokratik. Herriaren errealitatea, berriz, bizirik irautarena da. Nemirovskiren begiak okupazioaren kontraesanak ikusten lagundu dit, eta kolaborazionismo hitz arranditsua- ren atzean zenbat bizipen dau- den pentsarazi. Okupatzailea eta okupatua bizirik irautera behar- tuak daudenean, etsai hiltzaile gaiztoaren irudia halabeharrez eraldatzen da elkarbizitzan. Esango nuke egileak gertatzen zena epaitu gabe narrazio nahi zuela. Eta gertatzen zena bizitza bera da. Horregatik, naturaren deskribapenei pasarte luzeak eskaintzen dizkie gerraren kontrastean aurrera dagiela erakutsi nahian. Bizia jakituria da be- rea, barne bulkadak eta haien on- dorioak ulertzen dituen epairik eman gabe. Sufritzen ari zen ja- zarpena gorabehera, bere inteli- gentziak pertsonaia oro herrarik gabe deskriba zezakeen, jakitun balitz bezala etorkizunak ez zue- la mendekurik behar bere esku- tik, ezta Historia narrazio- rik. Obra eder eta zirraragarria utzi zigun, Historiaren ifrentzua, adi- men eskuzabal baten opari bizia.



'HODEIETAN'

- **Egilea:** Aitzol Lasak.
- **Argitaratzailea:** Elhuyar Fundazioa.

Narrazio honekin, CAF-Elhuyar saria irabazi zuen iaz Aitzol Lasak, gazteentzako zientzia narrazioen sailean. Bereziki, 12-16 urte inguruko irakurle gazte- entzako kontaketa lana da, ira- kurleei zientzia eta teknologia gaietara modu atseginean hur- biltzeko aukera eskaintzen diena.



'HIZKUNTZAREN KEINUA'

- **Argitaratzailea:** Euskararen Gizarte Erakundearen kontseilua.

Leire Salaberriak egindako aza- laren ondoren, 25 idazle idatzi- tako testu laburrak eta beste horrenbeste ilustratzailek egin- dako ilustrazioak aurkituko ditu liburu honen irakurleak, Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzaurraz gain. *Euskaraz bizi nahi dut* aldarri ezaguna dute testu eta ilustra- zio guztiek ardatz.



'ARRATIA ALDEKO KANTA ETA BERTSO ZAHARRAK'

- **Koordinatzailea:** Ruper Lekue.
- **Argitaratzailea:** Arratiako Musika Eskola.

Arratiako Musika Eskolak hain- bat ekimen antolatuta eta bultzat- tu ditu, bere sorreraren 25. urteurrena dela eta. Bilduma hau da horietako bat. Arratiako kanta eta bertso zaharrak bil- tzeaz gain, eskolaren historia kontatzen du liburuak.

↓ Haur eta gazte literatura

Hua zapo!

Hitzekin magia eginez etorri zaigu Añorga. Bere estilo- an eta bere mailan, hutsik gabe, edozein haurri gustatzeko mo- duko liburua proposatu digu. Orangoan betidanik eta mundu zabalean edonon egiten den jo- lasa hartu, eta hari narrazio ba- ten barruan txertatu du. Jolasa ezaguna da, hitz bat hartu —de- magun *arbel*— eta hura segidan eta azkar esanez beste hitz bat bilakatzen zaigu — *belar*, gure kasuan — magikoa dirudien modu natural batean.

Liburuan Mikel aitaxo eta Igor mutikoa ageri dira. Lotara- ko ordua da, eta aitaxok ipuina



'GURE HIZTEGI MAGIKOA'

- **Idazlea:** Pello Añorga.
- **Ilustratzailea:** Jokim Mitxelena.
- **Argitaletxea:** Aizkorri.

irakurtzeko gogorik ez duela- eta *Hiztegi magikoa* erakusten dio mutikoari. Hiztegi horretan, hitzak letra larri handitan ageri dira —Mitxelenaren irudien bi- dez ikusgarriak direnak irakurle- ontzat—; aitzak hitz bat aukera- tzeko eskatzen dio, eta, hala, hiztegiarekin jolasean aritzen dira, orriz orri, mutikoa lokartu, eta istorioa amaitzen den arte.

Literatur ikuspuntu hertsia ba- tetik hartuta, liburu hau anek- dota huts bat besterik ez bada ere, ondo idatzitako obra pla- zer-emaile baten aurrean gau- de, eta hori nabarmentzekoa da. Idatz-teknikaren araztasuna alde batera utzita, ezin ahaztu- ko dugu hizkuntza jolasak hau- rrei asko gustatzen zaizkiela, oharkabean eta gozatuaz euren hizkuntza gaitasunetan aurrera egiten laguntzen die, eta, hel- duok haurrekin zer egin ez daki- gula gaudenean, jolasen peski- zan gaitiltzanean, liburu honek iradokitzen digun jolasa erabi- liaz aukera ona izango dugu. Bost bat urtetik aurrera. ■ **IMA- NOL MERCERO**

Leun, oso leun

Misterio liburuak modan daude. Itzalak, mamuak eta banpiroak gazte literaturako liburu berrienak hartzen di- tuzte ia erabateko nagusitasu- narekin, liburu terapeutiko-ped- dagogikoekin batera.

Mainstream-ari jarraiki, mis- terioak argitu nahi dituen iker- tzaile baten abentura domesti- koa kontatzen digu Etxeberria- ren liburu kaleratu berriak. Baina leun, oso leun. Istorio ho- netan heroia neskato normala da, herri normal batean, erronka xume batekin.

Dena auzuneko leiho miste- riotsu batek abiarazten du, pro-



'EZ DAGO ARGI'

- **Idazlea:** Idoia Etxeberria.
- **Ilustratzailea:** Eider Eibar.
- **Argitaletxea:** Elkar.

tagonistaren irudimen beroak akuilatuta, noski. Parean duten etxe bateko leihoan gauero piz- ten dute argia, baina inor ez da inoiz ageri. Hala, argitu behar- ko misterioa dela ebazten du Mireiak, protagonistak, arrasta- ka lagunik onena dakarkiola, Paul. Hipotesiak bota eta erre- fusatuaz zirkulua itxiz joango dira, azkenean ekidinezina diru- dien pausoa ematera ausartzen diren arte: txirrina jo eta atez bestalde nor dagoen ikusi. Bai erraza, ezta?

Hirurogeita zazpi orriko testua hamar ataletan banatuta dago, eta egituraketa zein pertsonaia sare oso sinplearekin. Idazketak ez du esaldi korapilatsurik era- kusten eta lexiko arrunta dara- bil. Tentsioari jakin-minak eus- ten dio, ez dago suspense edo izurik. Ilustrazioak ere oso hera- beak dira, haur txikientzako mo- dukoak, agian ez oso aproposak mota honetako istorioetarako. Horregatik guztiagatik, bereziki aproposa dirudi narrazio luze- kin hasiberri diren irakurle auto- nomoentzat. ■ **I.M.**